

Guraso agurgarriak:

Herriko gazte talde batek beraiek elkartzeko lokal bat eskatu digu. Beraien eskaeraren arabera, lokal horren erabilera 12-25 urte arteko adinekoentzat mugatzen dute.

Adin tarte honetan adingabeak daudenez, gurasook bilera batetara deitzen zaituztegu gai honi buruz Udalak duen iritzia aurkezteko eta zuen iritzia ere entzun eta jasotzeko.

Bilera hau, OTSAILAREN 10EAN, ASTEAZKENEAN, ARRATSALDEKO 19:00ETAN, KULTUR ETXEAN izango da.

Bilera garrantzitsua denez, bilera horretara azalduko zaretelakoan agurtzen naiz.

Larraulen, 2010eko otsailaren 2an.

Alkateak

Xabier Mujika Pagola